

Dislexia duten pertsonentzat gomendagarriak diren formatuak

Dokumentuak sortzerako orduan, garrantzitsua da dokumentu horien aurkezpenari erreparatzea, informazioa erraz eskura daitekeela bermatze aldera. Jarraian ageri diren gomendioak baliagarriak izan daitezke:

- Pastel tonua duten paperak erabili (krema kolorea zuriaren alternatiba ona izan daiteke).
- Paper mateak lilura murrizten du.
- Hondo zuriaren gainean testu beltza erabiltzea ekidin, baita hondo ilunaren gainean testu argia ere.
- 12 edo handiagoa den tipografia tamaina erabili.
- Argiak eta biribilak diren eta letren artean tarteak duten tipografiak erabili, adibidez:

Century Gothic

Comic Sans

Arial

Verdana

Tahoma

Idatzizko estiloarekin antzekotasun gehiago duten tipografiak daude, baita dislexia duten pertsonentzat lagunkoia suerta daitezkeenak ere. Esaterako:

DK Cool Crayon

Dyslexie font

(Microsoft Worden aurki ditzakezu tipografia horiek dohainik edo merke eta baita online ere)

- 1,5eko edo biko espazioa utzi testuaren leerroartean.
- Marjina zabalak erabili.
- Letra xehea erabili letra larriaren ordean.
- Prosa beharrean, erabili zenbakidun edo puntodun binetak.

- Erabili testu-kaxak edo ertzak goiburuetarako edo testu garrantzitsua nabarmentzeko.
- Hitzen elkarketa eragin dezaketen azpimarrak edo italikak ekidin.
- Erabili letra lodia izenburuetan eta azpituduetan, baita informazio garrantzitsua edota gako-hitzak nabarmentzeko ere.
- Kolore-kodeak erabili testuan zehar – adibidez, informazioa kolore batez adierazi eta erantzunak beste batez-.
- Fluxu-diagramak, ilustrazioak eta eskemak sartu testu luzeak zatitzeko edo prozedura bat erakusteko.



- Datuak, grafikoak eta diagramak logikoak eta jarraitzeko errazak izan daitezela bermatu.
- Idatzizko esaldi eta argibideak motzak eta sinpleak izan behar dira.
- Paragrafo motzak osatu – testu bloke trinkoak irakurtzeko zailak dira-.
- Utz ezazu tarte bat erantzunak idatzi ahal izateko.

Zalantzarik izanez gero, galdetu pertsona bakoitzari; izan ere, denak gara desberdinak, baina sinpleak diruditen aldaketek eragin handia izan dezakete, dislexia dutenengan ez ezik, pertsona guztiengan.